

Lizentzia ordainduak 11/2009 FD, otsailaren 9koa, NAO 24 zk. Aldaketa: 71/2017 FD, abuztuaren 23koa, NAO 168 zk.

Kausa	Iraupena	Dokumentazioa
Azkenengo azterketak eta gaitasun-probak eta ebaluazioa zentro ofizialetan.	Behar den denbora.	Frogagiriak.
INAPen edo beste herri-erakunde batzuen lanbide heziketaren ikastaroetara joatea.	Gehienez 50 ordu urtean.	Aldez aurreko eskaera Frogagiriak.
Ezkontza edo bikote egonkorra.	15 egutegi-egun, modu jarraituan hartu ahal izanen dira ezkondu aitzinetik edo ondotik.	Familia liburua edo Erregistro Zibileko ziurtagiria.
Erditzea.	17 aste jarraian, 2 aste gehiago erditze anizkoitza edo seme-alaba desgaitua izan bada. Erditu ondoko 6 asteak nahitaezko atsedena izanen da amarentzat (gainerakoa aitak amarekin batera edo ondoren hartu ahal izanen du). Jaio berria ospitalean geratu behar denean, lizentzia luzatuko da umea ospitaletik atera arte, baina gehienez 13 aste gehiago. Prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izanen da.	Ziurtagiri medikoa eta familia-liburua. Erditze-lizentzia uztailean edo abuztuan ematen denean oporretako 27 lan-egunak eskatu behar dira.
Haurdunaldia.	37. astetik goiti lizentzia ordaindua izateko eskubidea dago (35.etik goiti erditze anizkoitzetan).	Frogagiriak.
Seme-alaba goiztiarrak edo erditu ondoren ospitalean geratu behar direnak.	Lantokitik 2 orduz egunero irten ahal izanen dira. Gainera, lanaldia 2 ordu gehiagoz laburtu ahal izanen dute, baina soldata hein berean murriztuko zaie.	Ziurtagiri medikoa eta familia-liburua.
Adopzioa edo harrera.	17 aste jarraian (2 gehiago adin txikikoak desgaitasunen bat badu, eta adopzio/harrera anizkoitza bada), administrazioaren edo epailearen ebazpen edo erabakiaz geroztik. Guraso biek lan egiten badute, lizentzia aldi berean edo jarraian banatu ahal izanen da, etengabeko aldietan. Nazioarteko adopzio edo harreraren kasuan, aldez aurretik atzerrira joan behar bada, lizentzia 4 aste lehenago ere hartu ahal izanen da. Eta 2 hilabete arteko baimena hartu ahal izanen da, oinarritzko soldata jasoz. Prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izanen da.	Administrazioaren edo epailearen ebazpena edo erabakia.
Erditze, adopzio edo harreraren lizentzia lanaldi erdian hartzea.	Aitak nahiz amak hartu ahal dute. Baina amak ezin izanen du hartu mota hau lehendabiziko 6 asteetan.	Frogagiriak.
Arriskua haurdunaldian edo edoskitzaroan.	Haurdunaldian edo edoskitzaroan.	Ziurtagiri medikoa.
Adin txikiko seme-alaba zaintzea, baldin eta minbizia edo beste gaixotasun larri bat, ospitalizazioa derrigortzen duena, badauka.	Lanaldia erdira laburtu, soldata murriztu gabe (guraso biek lan egiten badute), salbuesenez %75raino. Gehienez adin txikikoak 18 urte bete arte.	Ziurtagiri medikoa.
Ezkontidea edo bikotekide egonkorra, seme-alaba, aita-ama zaintzea, gaixotasun oso larriagatik.	Lanaldia erdira laburtu, soldata murriztu gabe, gehienez hilabete batez.	Ziurtagiri medikoa.

Lizentzia ez ordainduak 11/2009 FD, otsailaren 9koa, NAO 24 zk. Aldaketa: 71/2017 FD, abuztuaren 23koa, NAO 168 zk.

Kausa	Iraupena	Dokumentazioa
Norberaren kontuak.	5 hilabete arte bi urterik behin.	Eskaera arrazoitua.

Baimen ordainduak 11/2009 FD, otsailaren 9koa, NAO 24 zk. Aldaketa: 71/2017 FD, abuztuaren 23koa, NAO 168 zk.

Kausa	Iraupena	Dokumentazioa
Aitatasuna.	4 aste jaiotzagatik, harreragatik edo adopzioagatik (2 egutegi-egun gehiago 2. seme-alabatik aitzin edo desgaitua bada). Jaiotzatik edo harrera/adopzioaren epaitik hartu ahal izanen da, eta baita erdize, adopzio edo harreraren lizentzia ordainduarekin batera ere, edo lizentzia hori bukatu eta jarraian. Seme-alabak goiztiarrak direnean edo erditu ondoren ospitalean geratu behar badira, baimena ospitale-altatik hasi ahaliko da. Lanaldi erdian ere hartu daiteke.	Familia liburua.
Edoskitzaroa.	Egunean ordubete edo ordu erdiko bi zatitan, seme-alabak 12 hilabete betetzen duen arte. Erditze anizkoitzetan kopuru hori igoko da proportzioan. Erditze lizentzia bukatu eta gero hartuko da. Egun osoetan metatu ahal izanen da.	
Lagunduriko emaketa.	Behar den denbora.	Lanaldiaren barnean egiteko beharraren zuribidea.
Jaio aurreko azterketak eta erditzeko prestakuntza-teknikak.	Behar den denbora.	Joatearen frogagiria.

Adopzioa/harrera egiteko informazio eta prestatze-saioetara joatea	Behar den denbora.	Joatearen frogagiria.
Genero-bortizkeria.	Behar den denbora.	Gizarte-zerbitzuen edo osasun-zerbitzuen txostena.
Seme-alabak desgaituak artatzea.	Behar den denbora.	Frogagiria.
Ezkontidearen edo bikotekide egonkorren, gurasoen eta seme-alaben heriotza.	4 lan egun Nafarroan. (*) 5 lan egun Nafarroatik kanpo.	
Neba-arreben, aitagin-amaginarreben eta suhin-errainen heriotza.	3 lan egun Nafarroan. (*) 4 lan egun Nafarroatik kanpo.	
Aitona-amonen, birloben eta koinatu-koinaten heriotza.	Lan egun 1 Nafarroan. (*) 2 lan egun Nafarroatik kanpo.	
5 egunetik gorako ospitale-egonaldia edo ezkontidearen, bikotekide egonkorren, gurasoen edo seme-alaben gaixotasun larria, ospitalizazioarekin edo gabe.	4 lan egun Nafarroan. (**) 5 lan egun Nafarroatik kanpo. (**)	Ziurtagiri medikoa.
Neba-arreben, aitagin-amaginarreben eta suhin-errainen 5 egunetik gorako ospitalizazioa edo gaixotasun larria (ospitalizazioarekin edo gabe).	3 lan egun Nafarroan. (**) 4 lan egun Nafarroatik kanpo.	Ziurtagiri medikoa.
Aiton-amonen, birloben eta koinatu-koinaten 5 egunetik gorako ospitalizazioa edo gaixotasun larria (ospitalizazioarekin edo gabe).	Lan egun 1 Nafarroan. (**) 2 lan egun Nafarroatik kanpo.	Ziurtagiri medikoa.
Ezkontide edo bikotekide egonkorren, gurasoen, seme-alaben, neba-arreben, aitagin-amaginarreben, suhinen eta errainen 5 egunetik beherako ospitalizazioa edo gaixotasun ez hain larria.	Lan egun 1 Nafarroan. (**) 2 lan egun Nafarroatik kanpo.	Ziurtagiri medikoa.
Tratamendu larrien ondoan (kimioterapia, erradioterapia...) laneratzea erraztea.	Lan aldiaren %25erainoko egokitzapen mailakatur. Hilabete batez, baina beste batez luzatu daiteke.	Ziurtagiri medikoa.
Ezkontide edo bikotekide egonkorren, gurasoen eta seme-alaben kirurgia handi anbulatorioa.	2 egutegi-egun, ebakuntzaren eguna eta biharamuna. Gaixoa egun berean itzultzen da bere etxera.	Ziurtagiri medikoa.
Ezkontide edo bikotekide egonkorrekin, gurasoekin edo seme-alabekin egotea komeni den kirurgia-prozeduretan eta diagnostikoetan.	Egutegi-egun 1, probarena.	Ziurtagiri medikoa.
Bizilekuz aldatzea.	Egutegi-egun 1.	Frogagiria.
Nahitaezko eginbehar publiko edo pertsonala betetzea, eta familia eta lana kontziliatzea.	Epaitegietan agerraldia egitea / Desgaitasun psikiko, fisiko edo sentsoriala duten seme-alabak edo adineko pertsonak jasotzera joatea / Hauteskunderetan parte hartzea / Seme-alaben tutoretzetara joatea / Administrazioko hautaketa-epaimahaietako kide gisa joatea / Postu hutsa hautatzera joatea / Gobernu-organoen bileretara joatea zinegotzi, parlamentari, diputatu edo senatari gisa joatea / Lanerako beharrezko denean gida-baimenaren azterketara edo baimena berritzera joatea / Adin txikiko seme-alabekin medikuarengana joatea / Ezkontide edo bikotekide egonkor, arbaso edo ahaide desgaituekin medikuarengana joatea. Behar den denbora.	Lanaldiaren barnean egiteko beharraren zurbidea.
Odola ematea / Errenta-aitorpena egin.	Behar den denbora.	Lanaldiaren barnean egiteko beharraren zurbidea.
Hauteskunde politikoetarako hautagaitza.	Hauteskunde-kanpainaren aldia.	Aldez aurreko eskaera.
Hauteskunde sindikaletarako hautagaitza.	10 egutegi-egun, bozketa baino lehen.	Aldez aurreko eskaera.
Norberaren kontuak.	3 lan-egun urteko, orduka ere hartu daitezkeenak.	Aldez aurreko eskaera.

* Ondoz ondoko egunetan edo egun solteetan hartu daiteke hilabeteko epean.
** Ospitalizazioan edo gaixotasun-aldian hartzeko, [edo ospitale-altaren egunaren ondoko 15 egunetan.](#)

- Ordainpeko oporrak urtean/ikasturtean 27 lan-egun direla hartzen da.
- Kontraturiko pertsonalak lizentziak eta baimenak hartzeko eskubidea du.
- Baimenak 10 egutegi-egun aldez aurretik eskatu behar dira.
Egutegi-egunak: igandeak eta jai-egunak barne.
Lan-egunak: benetako laneko egunak, astelehenetik ostiralera.
- Eskariak ebazteko gehieneko epea 20 egunekoa da. Epe horren barnean jakinarazpenik jaso ez bada, administrazio-isiltasunez baietsi dela ulertuko da.
- Oporraldiaren barnean hurrengo egoeraren bat gertatzen bada, etenda geratuko da, eta falta diren egunak lizentzia/baimena bukatu edo alta medikoa jasota berriro laneratzen denean hartuko dira: erditze, adopzio edo harreragatiko lizentzia ordaindua, haurdunaldi eta edoskitzaroko arriskua, lanaldi osoko aitatasun- edo edoskitzaro-baimena, edo oporrak bitartean aldi baterako ezintasun bat sortzen bada.